



BERRIATUKO UDALA

Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea.berriatua@bizkaia.org

BANDOA

Coronavirusaren zabaltzeari aurre egiteko prebentzio-neurriak

Coronavirusaren zabaltzeak sortutako osasun arazo globalari aurre egiteko, Berriatuar guztiok jakin dezazuen, ondoren azaltzen diren neurrien berri ematera nator:

- **Kirol ekintza antolatu guztiak** bertan behera geratzen dira eta **ibarrako kirol instalazioa** itxi egingo da, futbol zelaia barne.
- **Eskolaz kanpoko jarduerak** eten egingo dira.
- Berriatuko **Kultur Etxea eta Liburutegia itxi** egingo dira eta beraz, bertan antolatutako ekintza eta ikastaro guztiak bertan behera geldituko dira.
- **Musika-eskolaren** jarduera ere eten egingo da.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren agindua betez, Berriatuko Herri **Ikastetxearen** eta **Haur-eskolaren** jarduera eten egingo dira.
- **Anaitasuna Elkarte**a ere itxi egingo da.

Neurri hauek guztiak **2020ko martxoaren 13an sartuko dira indarrean** eta horrelaxe mantenduko dira abisu berri bat eman artean.

Bestalde, herritar guztiei gogorazten dut gaixotasunaren sintomak (sukarra, arnas-arazoak...) dituztela uste duten pertsonak Osakidetzako Osasun Kontseiluarekin harremanetan jarri behar direla, telefonora honetara deituaz: 900 20 30 50.

Gainera, dei egiten diet sintomak dituzten pertsonak ez daitezela egon adinekoekin edo gaixotasun kronikoak dituztenekin kontaktuan, edo leku publiko eta jendetsuetan.

Azkenik, dei egiten dut ere higie-neurriak hartzera, hala nola eskuak garbitzera, ez tul egitean estaltzera edo erabili eta botatzeko zapiak erabiltzera.

Berriatuan, 2020ko martxoaren 12an.

Alkatea

